

GAZTE NAIZ

Kultura bereizien Europa 'runtz

Nor da Servan-Schreiber'en berri ez dakiana? «AMERIKAREN ERRONKA» aren liburua dala-ta, Europa osoaren aotan dabil. Idazlan zorrotz eta gaurkoa Servan-Schreiber'ena. Lau illabete naikoa izan ditu, Europa zaar ontan bakarrik milioi bat ale saldu ahal izateko. Artikulu ta alkarikus-keta ugari argitaratzen da azken bolada ontan, Servan-Schreiber'en ideak ezaguneraziz.

A. Caraban'ek «Gaceta Ilustrada» asterokoan idatzi duenetik, Europa ta kultural buruzko iritzi batzuk jasotzen ausartu naiz.

Kolonialismoa ikusgaitaz, «management» eta Unibersidadeaz, ezkerre ta komunistatz jarduera ondoren, Merkatu Batua ta europere federalismoaren gaiari elitzen dio.

«Erabatua ez da izango, beintzat. Europa aitatzen deneko, zera uste du askok, izkuntza bakar bat izango litzakela, irakast-era berdifia leku guzietan, labor esan, erabatasun osoa. Ez dago orrelakorik: gure federalismoak, sendotu ta azi nai ba du, guztiz errespeto aundia agertu bearko die nazio-bereizitasunai ezik, baita errejiozkoai ere.

Suliza'n, esate baterako, federazio-eredu onena izanik, iru izkuntza kidekide bizi dira ta iru naziotasun, la esango nuke. Orrela ba, desberdintasun aundiak izango ditu orain eta beti Europa'k, ta inori ez lekarkioke onik oiek bateratzeak. Indardun izan nai degu ta orregatze zaigu bearezko kultura-desberdintasuna. Iparaldeko Frantzia, Ruhr, Kataluña ta Egoialdeko Italia'ren bearrean gaude. Guzti au ga-

rrantzi ta interesik aundieneko da. Ta indar berezi bat munduan sorrarazteko industri-federalismora gerturatu-ala, gero ta geiago landu bearko degu kultura-bereizitasuna ere. Gauza bat artu bear degu buruan: industri-indarrarentzako federalismoa ta kulturarentzat errejionalismoa, ezin banatuzkoak dirala. Ta Europa'ren indarrak bakarrik babestu ta azieraziko ditu bear aifean, kultura bearezik».

España'k Europa'ri eman lezaiokeanaz mintzo dala, ara zer dion:

«España'ren esku-artzeak indar emango lioke, baitipat, kultura-bereizitasunari. España oso kultura bereizita da ta garrantzi aundia du, Europa'n kultura-desberdintasun ugaria izateak. Ez dedilla erabateko izan, au litzake, bear bada, Estadu Batuai aurpegiara bota leikena. Amesten degun Europa askozaz aberatsago izan liteke kultural dagokienez ta espaiñar kultura garrantzi aundikoa da».

Servan-Schreiber'en itz auentzat ez dago komentario aundi bearrik. Europa'ko gizonik argienak ta indar berriz etorkizunari gorputz ematen ari diranak onela pentsatzen duten bitartean, ez da itxukeri makala, batek baiño gelagok artzen duan postura, ta ori geure etxetik irten gabe. Zuztarrak gaitzea ta morokil-zapero biurtzea degu gaurko aririk aundienetakoa ta aaitz orri aurre artu nai ba diogu, kultura-bereizitasunari indar ematea da biderik egokiena.

X. MENDIGUREN

Bakearen billa, bano zelako bakea?

Azpaldion entzuten doguna da, erri talde andiaren aonetatik, baita era askotako uskurtz edo religiñuen bitarteko ibil aldiyetatik be, Bakea lortu biar dala gizon eta erriaren artean. ¡Bakea! Itz gozoa benetan. Leuna. Sakona eta merke-merke. ¡Eta ze urrun dabilen gizon ta erriaren adimen ta pentsamentutik ames eder ori! Alperrik da esate ezagun au, batez ere Gabon aldiyetan, diñogunean: «Aintza Goyetan Jaunari, eta Bakea lurrean gizon zintzoari». Emen dago sartuta, gizonentzako, munduko Bakea.

Zein da gizon ori bake-arela dana mundu onetan? Eta zein erri da bakearen billa dabilena? Itau gatxa erantzuteko. Baliteke erantzuna emotea, «Rayos X»'egaz errez ba' lego gizon eta erriaren «arime» eta «kontzientzia» ikusten. Orduan bai jakingo leuke nortzuk diran bakezale benetakoak.

Bake-zale gitxi ezagutu doguz gizalde onetan. Eta lengo gizaldietan be, ez dot uste bake-zale askorik izango zanak munduan.

Eskuetako atzakaz ainbatu bayetz bake-zaleak nortzuk ziran? Beintzat baten batzuk aitatu leizi: euron artian: XIII' garren Lon, bere gizarte arazosko gizon eta arriarentzako lan ogi eta bideak eskatuta. Sutter eta Remarke, guda lortzagarrizko igaroren litzak idatzita. Kuakero'tarrak, euren bizimoduaren irudipenak agertuta. Bertran Russell, bere asarre biziya guda-zaliari arpegiara jaurtita. XXIII'garren Jon, gizarte-arazo eta erri arteko anaidi azkatasunetzazko idazki doneak idatzita. VI'garren Paulo, bere aurreko Doipurua'ren antzera, gizarte-arazo, zuzutz eta maitasuna, erri biartuenaren alde bake-dei larriak egin da. Albert Schweitzer eta Leger kardenalnak, euron buruak ukatu, eta umiltasun guztiazagaz, euron biotz anditasunaren printzirik ederre-nak gexoz eta biarrizanean dagozien alde lan eta gexotzaz lagundu-ta. Onexek dira bakearen billa ibilli eta dabiltzazienak.

Besteak, nortzuk? Ez da errez aurkitzen inon. Siñis-gatxa benetan.

Asko dira gizon eta erriak bakearen izena euren ao eta ingiyetan dabiltzazienak. ¡Aon eta ingiyetan! Egikeratan ez. Nazitarran antzera bai. Ta geroago, irri-parre sorgiñ antzeko bat egin da, burruka zapaltzea ondoan.

Batzuk edo askok gure dabilen bakea, euren erarako bakea dozu. Indarraren bakea. Zigorraren bakea. Guzurrerko bakea. Eta azkenez, illobietako bakea. Olako bakerik sortutetik, Goi Alguztidunak gaizkatu gaitzela.

Gizonaren eta erriaren bakea gura ba'dabe mundu onetan lortu, zorakeri barik, bai dakoe nondik asi. Erri aberatsak eta gizon jakitunak gosez eta atzerakor bizi diran erri-gizonari lagunduta. Aurrerapidezko tresna eta biar diren teknika-gauzak eskuetara emonda. Lagun bultzakada bidez, euren buruaren yaube izaten, ezelako abpiratze barik asmo ta zintzotasunez eskiñita. Norberen antzera gizon eta erri guztizari bardintasuna emonda. Ori izango litzake benetako anditasun ta bake-biderik onena, abere antzera burua inori makurtu barik, Goirantzta Begira yaso-ta. Bardintasunez izkentan zu eta ni alkarregaz ibillita.

Bakea diñogu eta Bakea gura dogu; berau dalako era guztizyetakoko Askatasunaren egizko iturria. Postazunarena. Zuzentasunarena eta Maitasunarena.

Oroitu gaitzan Hiroshima eta Nagasaki'ko triskantzakaz. Olakoxe arpegi dauko askok gura daben bakeak. Negarra: Eriotza: Autsa: Ezereza.

Gudeari gudea egin biarrin aurkitzen gara gizaldi onetako gizonok. Eta onetara lortu aldi luzietarako Bakea. Ostantzian, laster ikusiko doguz danoren ondotik igaroten, apocalipsis'ko lau zaldi ganekoak euren ikaragarritzko tronpetada adarrak jotzen.

Gorz ekonomiatik haruntz

Urtarrilleko "Indice" aldizkarian irakurri berria dut André Gorz'en "Sindicalismo y Política" artikulu mamitsua. Kapitalismoaren funtsezko bidegabeak erretzen gaitun guzizko ba dugu lerro horietan zer pentsaturik: neokapitalismoa Europa'n eta munduan finkatu eta sendotu ala, sozialismoaren etorkizuna gero eta beltzago agertzen da. Kapitalismoaren aurrerapenek ekarri ez baiñan uxatu egiten dute sozialismoa.

Gorz'en puntu asko, nola ez gogoan hartuko? Sozialistion ezintasunak, nola ez kezkatuko? Gorz'ek illun ikusten du sozialista-eginkizuna. XIX-gn. mendeko mesiakeria eta baikorkeria guztizatik oso urrun gaude: Europa'n sozialismoa sekulan baiño urrutiago agertzen zaio "Le Socialisme difficile"ren egileari. Mendebaldean, batetik, herrien biziera oiñarrian kapitalisten eskuetan dagoelako gera urrun; eta, bestetik, Ekialdean gizona zapalduta dagoelako, eta pertsona-askatasun horiek burgeskeria axaleko eta mespretxagarri bat ez diralako ("Estas libertades no son en absoluto desdeñables", dio Gorz'ek).

Gure herrietako soziologi-giroa kapitalisten erabakien araberamamitzen dan neurrian, pertsona-askatasuna, deputatu-parlamentuak, eta "Mendebaldeko Demokrazia" osoa hustu egiten dira: hau ezaguna da, egia hutsa da. Orain dala oso gutxi aipatu ziran horrialde hauetan Belgika'ko parlamentuaren hutsegiteen problemak; eta akats hau Europa'ko erresuma askotan gertatzen da. Alegia: demokrazia-erren kakoa ta dago: demokraziaren burruka beste mailla batean egin behar da 1968-an. Bestela alegiazko burruka da, "zerinomia" huts bat, eta ez du deusatarako balio. Gorz'ek hau guzie txit ondo azaldu du bere artikuluan.

Beste puntu batzutan, problemak ximplekiegi aztertzen ditu, nere ustez: giza-askatasunaren ukera ez da izan "stalinismo"ren ondorio bat (Gorz'ek hau dio); marxismo-leninismoaren beraren ondorio bat buizik: "mespretxagarri" ez zaizkion giza-askatasun horiek, Stalin'en garaietan eta Stalin gabe, komunista erresuma guztietan izan dira zapaldurak: bai 1917-an, bai 1937-an eta bai 1968-an; bai Asia'n eta bai Europa'n, bai Albania'n eta bai Alemanian. Askatasunaren zapanketa hau Bakunin'ek somatu zuen orain dala ehun urte, eta Proudhon'ek berak lehenago Gorz'ek ez digu hau garbi esaten; izkutatu egin nahi bide du, "stalinismo" hitzaren atzean komunismoaren habe nagusi bat. Askatasuna arrikutan dago Marx'engan, eta marxismo-leninismoan urkatuta dago.

Berbert Marcuse'ren azterpideak Gorz'ek bere egiten dituelarik, geuk ere onartu egingo genituzke. Teknokrazia eta "produziokeria" ezestean Gorz'ek dionez, "produziokeria" horrek ez du sekulan konponduko gizonaren arazoa. Produzioaren emendatze hutsaren sasi-soluzio hori "ez da gauza —dio Gorz'ek— zeren-eta astia, giza-dohaiñen haziera, kultura-sortzea, bizieraren helburua, gizonen arteko hartu-emanen aberastasuna, "ekonomiatik at"eko kategoriak eta ondasunak baitira. Zeren-eta ondasun horien hazierari eta balio-esteari, ekonomi-maillakoak oro giza-maillakoen menpeko jartzea bailegokioke, "askatasunaren etika" baten menpeko, beraz, eta, hitz batez, ekonomiaren lehenitasuna erauziko babiltzake, ikuspegi guziz "erreboluziozko" iraulteta bat gertatuko, eta ekonomia eta erresuma "berri" bat eraiki beharko bailirake". Produziokeria eta teknikeria ez zaizkio Gorz'i, beraz, soluzioa iruditzen; eta guri ere ez.

Gorz'ek muñera heldu da hortan, gure ustez. Sozialismoa ez da amets bat, ez da ere ekonomiaren legeek ezinbestean ekarriko dituen parabisu bat: SOZIALISMOA GIZA-ETIKA BATEK EKARRI ETA ZUZENDU BEHAR DU. Erdi marxista baten ahotik hau entzutea pobgarri zaigu: gaur arte irizkera hori "burges ideakeria" besterik ez baitzan...

Sozialismoa nahikunde-modu hortara aurkeztu ezkerreko (eta horrela eta ez bestela aurkeztu behar dala iruditzen zaigu), sozialismoa "zailla" da; eta komunismoa utopien maillan gelditzen da. Garaia zan!

Errealismo-oiñarri horietan ba dago, gure ustez, gure herriari dagokion sozialista azterpide bat. Sozialismoaren helburuak erakartzen dituen guzizko alde hortatik jo behar dute. Ala "aurrazale" batzuk ehun urte berandu, eta herri nahasturik, agertu dirala esan ahal izango dugu. Gaitz zaie hau balakoei, baiña beren makurra ez da gure errua.

Nola ez alkartuko, azkenik, "Indice" hortantze, Gorz'en iritzi batzuk eta Toybee'k "hippy"ei buruz diona? "Hippy"en erabakien kakoa, adierazten zaigunez, diruari uko egitea izan zan: "bizieraren zederik gabez" utzi zuten dana, eta eskale gisa hasi.

Gizonaren problema ren sakontasuna alde guztizatik ari zaigu agertzen. Diñatasunetik honuntz, noski, ez dago gizatunetik, ez dago gizonik, ez dago ezer. Baina diñatasunetik haruntz gizonaren egiazko arazoa agertzen da: "zer da hau guzia? zer ari naiz ni hemen?". Eta hau ez da ekonomikoa. Ekonomia da gizonaren alienazioa, hain zuzen. Kinku nagusi eta guztizko baten atarian bertan gaude, nere ustez.

LARRESORO

URKIDI